



7- Funtsezko baliabideak:

Gure zerbitzua ahalik eta modu hobereanean eskaintzeko hainbat baliabide behar ditugu: bai baliabide fisikoak, bai intelektualak, bai giza-baliabideak eta noski baita finantza-baliabideak ere. Gure baliabideak modurik optimoenean erabiltzeko hainbat faktore hartzen ditugu kontuan gure zerbitzuak besteengandik desberdintzeko.

Baliabide fisikoei dagokionez, gure instalazioak oso egokiak dira bai hartzaindegi zerbitzua eta bai errefortzu klaseak eskaintzeko, hainbat gauza hartzen ditugulako kontuan gure instalazioak gune erosoak izateko umeentzat.

Baliabide intelektualak oso kalitate onekoak dira baita. Esaterako, gure enpresarekin kolaboratzen dituzten markak aldeztu aurretik aukeratze-prozesu oso zorrotza pasatu dute, adibidez: hartzaindegi zerbitzuan haurrei ematen dizkiogun potitoak. Era berean, teknologia berriak erabiltzen ditugu, gure errendimendua hoberean izateko eta ahalik eta gailu gehien eskaini ahal izateko.

Aurretik aipatu dugun bezala, gure giza-baliabideak oso onak dira ere. Lehen esan dugunez, gure langileak eskatzen ditugun ikasketak-maila handiak dituzte eta guztiz prest daude umeekin lan egiteko. Baita ere gu laurok gaude organigraman, bakoitza bere arloan guztia kontrolatzeko eta aurrera ateratzeko.

Azkenik, finantza baliabideei dagokienez, oso ondo gabiltza finantza arloan. Oso enpresa abegikorra garenez, familia askok konfidantza dute guregan eta gure prezioak ere nahiko egokiak direnez, diru-iturri handia dugu eta aldi berean etekinak ateratzen ditugu. Beste aldetik, diru-laguntzak ere jasotzen ditugu gobernuaren bidez.

